

**‘EUROPAKO MUSIKA EGUNA’ DELA ETA,
PRENTSARREKOA ETA IHARDUNALDI SEKTORIALA**

(DONOSTIA – EKAINAREN 17a)



PRENTSA TXOSTENA

1.- SARRERA

2.- 2014KO AURKEZPENA - TOPAKETAREN EDUKIAK

- 2.1.- Musika eguna del eta, Manifestua
- 2.2.- Sektore-ihardunaldia
- 2.3.- Kontzertu eta jarduerak –‘Adi gure musikari’

1 ERANSKINA: Manifestuaren testua (egilea: *Edorta Jimenez*)

2. ERANSKINA – Maiatzaren 29tik eta Uztailaren 26ra bitartean garatuko diren ekintza zerrenda

ERANTSITAKO BESTELAKO MATERIALAK: diptiko promozionala eta bideoak (artxibo konprimituak jaisteko esteka).

1.- SARRERA

Europako Musika eguna dela eta (Ekainak 21), Eusko jaurlaritzaren ‘Euskadiko Soinuak’ programaren inguruan kolaboratzen duten euskal musika sektoreko elkarte batzuk¹ eta **Kultura sailburuordetza**, elkarrekin azaltzen dira, **Musikak–orohar-, tokiz tokiko musikak-Euskal Herrikoa, gure kasuan- baita musikaren inguruan lan egiten duten eragile desberdinen aktibitateak ere, kultur balio gisa duten garrantzia erreibindatzeko**. Eragile horiek guztiek arlo kultural eta industrial bizia eta aktiboa osatzen dute.

laz, **Musika eguna** bezalako ospakizuna aprobetxatuz eta ‘Euskadiko Soinuak’ plataforma beretik ere, sektoreak, antzeko aurkezpen eta ihardunaldi bat antolatu zuen, bi urteotan, lankidetzaren dinamika zabalago baten barruan: izan ere, **eragile horiek guztiak, Kultura sailburuordetza eta Etxepare Institutua-ren laguntzaz eta lankidetzaz, ‘Musika bulegoa’² proiektuaren oinarrien formulazioan lanean ari baitira** gogor azken hilabetetean.

2.- 2014KO AURKEZPENA – TOPAKETA-REN EDUKIAK

2.1. Edorta Jimenez-ek idatzitako Manifestua

lazko Musika eguneko manifestuan, **Rikardo Arregi** idazleak zuzeneko musikaren inguruko esperientziaren sentimendua islatu bazuen, **aurtengoan , Edorta Jimenez-ek begirada poetiko bat ekartzen du bere testura**, Musika, aspaldiko abots unibertsal gisa alderatuz (1. Eranskina).

¹ ‘Euskadiko Soinuak’ programan kolaboratzen duten **Elkarteak**: **Kultura live** -Asociación de salas musicales privadas -; **MIE**-Musika Industria Elkartea-; **Musikari** -Asociación de Músicos-; **Musikagileak**-Asociación de compositores-; **MEE**-Musika Ekoizleen Elkartea-.

² ‘**Musika Bulegoa**’ **proiektuaren definizioa**: Euskal Herriko musika eta musika-jarduerak bultzatu eta hobetzeko sektore-lankidetzaren ekimen estrategikoa. Proiektu honen abiapuntua aurrean bertan emango da sektoreko plataforma zabal eta ireki baten sorrera eta errejistroarekin.

2.2. Topaketa eta eztabaida ihardunaldia

Aipatu iazko ihardunaldiaren formatoari jarraituz, **prentsaurrekoaren ostean, sektoreko eragile desberdinek lan ihardunaldi txiki batean parte hartuko dute.** Aurten mahai inguru bat antolatu da, **ondorengo gaia delarik: “Euskal Herriko Musika Sariak: proiektu interesgarria sektorentzako?”**. Mahai honetan **hizlari hauek** parte hartuko dute:

- Inés Osinaga (musikaria – ‘Gose’ taldea);
- Iñaki Salvador (musikaria eta ‘Musikari’ elkartearen presidentea);
- Iñaki Alberdi (musikaria);
- Edurne Ormazabal (kazetaria, EITB);
- Joseba Cabezasa (kazetaria, ‘Jazzargia’ Elkartea)
- Iñigo Argomaniz: (managerra, promotorea);
- Ritxi Aizpuru (promotorea, ekoizlea).

2.3. Kontzertuak eta Jarduerak ‘Adi gure musikari’

Ihardunaldi honetaz gain eta ‘Musika eguna’-ren testuinguruan ere, **‘Euskadiko Soinuak’** programak, Elkarateek eta enpresek antolatzen dituzten zenbait kontzertu, hitzaldi, mahai inguru, erakusketa eta bestelako jarduerak babesten eta zabaltzen ditu (2. Eranskina).

Horiek guztiak, programaren eta ‘Musika bulegoa’-ren proiekturako formulatutako helburuekin bat datoz. Ekintza horietan guztietan *Edorta Jimenez*-ek idatzitako testua zabalduko da, nolabait, gure Musika sektoreko eragile desberdinek konpartitzen dituzten baloreak transmititu asmoz.

Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuordetza
‘Euskadiko Soinuak’ programan kolaboratzen duten entitateak

1.- ERANSKINA - Manifestuaren testua

HEZURREN MINTZOA(Edorta Jiménez Ormaetxea)

Goiz hartan gizakiak hezurtxoa hartu zuen eskuetan. Luzaz egon zitzaion beha. Hezurrari Eguerdia aldera, zulatu egin zuen. Hezurra. **Eta putz egin zion. Hezurrari. Eta erantzun egin zion. Hezurak.** Gizakiari txirula bilakatua zitzaion. Hezurra. Eta halaxe hasi zen hago gizakia bere arnasaren beste dimentsioak bilatzen. Haizea orrazten. Geometria ezkutukoekin jolasten. Hezurren mintzoa bere arnasaz aditzen.

Uzturitzen izan zen. Duela 23.000 bat urte, Karbono 14ak dionez. Eta urteak gora-behera munduko beste lekuetan ere halaxe izan zen. Eta harrez gero ez da isildu hezurren mintzoa. Ez gurean eta ez munduan.

Ez da isildu, ez, hezurren mintzoa. Ez kalabaza zulatuena, ez soka tenkatuena, ez larri josiena, ez metal birilduena, ez kainaberena ez eta beste zernahiz sortzen ahal denarena ere. Eskuaz ahoaz belaunez ukondoaz hatzez oinez bularrez eskuarekin sortzen ahal den ororen mintzoa: Musika.

Hezurrez hezur eta arnasaz arnasa Humanitateak musika sortu eta sortu dihardu. Hala mundu zabalean nola gurean. Munduarena baita musika, eta musikarena mundua. **Gure musikak geu egiten gaitu, eta munduko egiten gaitu.** Munduko eta geu, geu eta munduko gara. Humanitatea gara. Hezurren mintzoa geuk sortu genuen. Humanitateak. Musika gu guztion bigarren mintzoa da. Humano guztiok, guk guztiok, aditzen eta ulertzen ahal dugun mintzo bakarra.

OHARRA: Manifestu honen testua, honekin batera erantsitako bideo batean jaso da:

Bertsio luzea: (2' 41''): <https://www.dropbox.com/s/rv7gcm8arat9a10/MANIFESTOA.mp4>

Bertsio laburra (50''): <https://www.dropbox.com/s/8nvxvtvxs2q2wxj/d%C3%ADaDeLaM%C3%BAsica2.mp4>

2. ERANSKINA : MAIATZAREN 29tik eta UZTAILAREN 26RA BITARTEKO EKINTZAK

KONTZERTUAK

Eñaut Elorrieta	V / 29 - VI / 1	Bilbo /Donostia
Neighbor	VI / 1	Soraluze
La Jodedera	VI / 6	Soraluze
Hasier Oleaga & Nevermind	VII / 6	Soraluze
11º Big Band Festival	VI / 13 - 14	Gasteiz
Damba	VI / 14 - 21	Astigarraga / Baiona

Disaster People + The Highlights + Los Zigarros Valerie 23 + Smoke De Luxe + Small Jackets	Killing	VI / 19	Gasteiz
Berri Txarrak		VI / 20	Ondarroa
Aitor Olea		VI / 21	Orio
Gobeo Bay + Tacumah		VI / 21	Bilbao
Ciklus Ensemble		VI / 21	Donostia
Musiketxeak Eskenatokia: Zona Cero +Kometa + BackBone & Move Martin		VI / 21	Mundaka
Voces y cuerdas		VI / 22	Soraluze
Musikalís Abesbatza		VI / 22	Orio
Gauart: Oscar Mulero - Cristian Wurch - El Txefa - Vortex - Kike Pravda- Kasper	Neo	VI / 27	Gasteiz
Miguel Salvador Jazz Trio		VI / 29	Soraluze

HITZALDIAK / MAHAI INGURUAK / BESTERIK

Koldo Izagirre: "Parisen bizi naiz"	VI / 3	Soraluze
Ritxi Aizpuru eta Gatibu: Euskal Herriko Rock musikaren historia.	VI / 4 / 5	Zegama / Laguardia
Musikari Elkarteak: "Educacion musical y futuro profesional"	VI / 6	Donostia
Ritxi Aizpuru eta Gatibu: Euskal Herriko Rock musikaren historia.	VI / 12	Gabiria
Practice Your Music Live	VI / 14 - 21 // VII - 26	Bilbo/Donostia/Gasteiz
Argazki Musikalak Erakusketa	VI / 15 - - VII / 15	Soraluze
Fermin Etxegoien: " Musika eta Literatura irratigintzan"	VI / 17	Soraluze
Musikari Elkarteak: El Musico ante sus obligaciones fiscales	VI / 19	Donostia
Musikagileak Elkarteak: " In situ: La creacion musical contemporanea, contexto y desafios"	VI / 21	Donostia
Erakusketa Azaletatik sustraierara	VI / 21	Mundaka
"Tu cami me suena"	VI / 21	Mundaka
Musikari Elkarteak: "El Musico, la Musica y los Medios de comunicaci3n"	VI / 27	Bilbo
Andoni Tolosa "Morau": Euskal Kantagintzaren historia laburra	VI / 27	Soraluze
Ritxi Aizpuru eta Korrontzi: Euskal Herriko folk eta triki musikaren historia.	VI / 28	Mendavia

Informazio gehiago: www.euskadikosoinuak.com